

**M**

Proiektu amankomunatu baten argiak eta ilunak.

**CC**

**Kooperatibismoak sortu dituen lantegiak eta lanpostuak kontutan hartze-ko modukoak dira. Baina egileari kooperatibismoa ideia bezala interesatzen zaio, gauzak beste modu batera pentsatzeko aukera eskeintzen duelako.**

## **Kooperatibismoaren argiak eta ilunak**

**Joxe Azurmendi**, "El hombre cooperativo" liburuaren egilea.

**E**man dezagun krisi batean gaudela. Baina ez krisi ekonomikoan bakarrik. Gure kultura guztia daukagula krisian. Estatua orain arte imaginatzen genuen modua, adibidez, higitu egin dela. Ez duela balio eta berriro pentsatu beharra daukagula nola nahi dugun politikoki erakundetu. Orain, bistan da, Estatua Baino gehiago, Europa nola erakundetu, pentsatu beharko genuke.

Esan nahi dut, problema lehengo bera dela: gizarteari nolako erakunde politikoak sortu. Baina problemaren sentidoa aldatu egin dela: lehen Estatuaren problema zena orain Europaren problema dela. Horrelatsu dauzkagu kapitulu gehienak gure kulturari.

Komunitatearen kontzeptua, adibidez. Eta horrekin publikoaren eta pribatuaren arazo guztia dago lotuta esate baterako, eta gure ekiboko

pila bat. Azkenean liberalismo zaharkote eta antiliberalismo zaharkitu edo ezkerismoaren artean harrapatuta gaudela ematen du. Ikastolak: publikoak ala pribatuak? (Ez du adibide bat besterik ezan nahi). Dilema batek harrapatuta gaudela dirudi: bat egiten bada, Estatu indartzen da; bestea egiten bada, burgesia indartzen da ... Zergatik ez da galdetzen: pribatu (burges)aren alternatiba bakarra Estatuak izan behar ote du?. Horrela gauden artean, ez da posible izango modelo barriak asmatzea. Aukera bakarra okerraren eta okerragoaren artean izango da. Izan ere, mutur batean Estatu eta bestean gizabanakoa (botoa daukan indibiduo isolatu hori), bion artean hutsa, gure planteamenduek ez daukate kontzepturik, terminorik.

Baina hori ez da horrela ez sozialki, ez historikoki eta ez inola. Hori burgesiaren inbentu hutsa da eta inbentu hori borrokatzeko amorruagatik, ideia bera desegin gabe, horrelaxe onartu egin zuen ezkerrena. Bitartean egon komunitatea dago, liberalismo zaharrak XVIII. eta XIX. mendeetan inolako ezagumenturik egin ez ziona, baina gizabanakoa humano egiten duen bizileku historiko, linguistiko, erlijioso, kulturala, politikak ere ezagutu dezala beharra daukaguna orain. Eta euskaldunok inork baino beharrago, baina ez euskaldunok bakarrik, Europa hori supermerkatu erraldoi bat baino zerbait gehiago izango bada pertsonentzat.

## Kooperatibismoa: gizartearen filosofia

Sarrera luze hau bukatzeko: niri kooperatibismoa ideia bezala interesatzen zait. Pentsamendu bezala. Gauzak berriro beste modu batera pentsatzeko aukera bat eskaintzen duelako, interesatzen zait hain zuzen. Eta posibilitate eta esperantza horixe da kooperatibismoaren gauzarik positiboena niretzat. Sortu dituen lantegiak eta enpresak, importanteak dira, ez dut hori ukatu nahi. Baina sinestuta nago, gure kultura guztia birpentsatzeko benetan balio duen inspirazio bat, dagoeneko beste non bilatu ez dakigun, kooperatibismoak badaukala eta oso baliotsua dela hori, aprobeztatzen badakigu.

Positibotasun oso abstraktua dela hori? Segun nola hartzen den eta sinesten den, gauden krisi hau benetan erro-errotikoa dela, gure kultura guztiarena, eta ez mendabal gaizto pasakor bat. Oso konkretua iruditzen bait zait kooperatibismoak pentsamendu bezala eskaintzen duen laguntza, gure momentua beste planteamendu batzuekin ulertzeko eta etorkizuna beste modu batera imajinatzeko. Hemen halere, kooperatibismoa zer filosofia den hedatsua garatzerik ez dago, eta (aldizkari honetan) seguruen beharrik ere ez. Baina, ideologia nagusiek porrot egin dutela, esaten duenean mundu guztiak, eta krisia denontzat ebidentea denean, kooperatibismoak ez bakarrik lanaren eta

### Akatsak

Kooperatibismoaren akatsak seinatzeko, hobeto ezagutu beharko nuke barrutik esperientzia hori. Beharbada nik esan dezakedana, batez ere haren arriskuak dira, akatsak-edo baino gehiago.

Eta lehenengo akatsa, nahikoa grabea luzarora, horixe litzateke: kooperatibismoak berak faltsezta bere burua, hau da, enpresako soluzio soiltan geratzea, bizitza sozial guztia animatzeko filosofia bihurtu gabe. Edo bere efikazian, produkzioko arrakastan eta holakoetan gehiegi fijaszea, Arizmendiarrieta Supertaylor edo Supertajanov bat izan bazenute bezala.

Idea eta idealei denborarekin beti jazoten zaiena da, makineriak harrapatzen dituela. Harrapatu, zukutu eta mastrakatu eguneroko martxan, azkenean izpiritu ttantta bat utzi gabe. Proiektuak, agortzeko arriskua du orduan. Beharbada sintomatikoa da: badirudi kooperatibismo enpresarialak bere garapidean bizkor-bizkor jarraitu duela krisian ere, berritzen, adaptatzen; baina Don Jose Maria hil zenez gero, ideia berriki eta proiektu berriki, sentido sozial batean, ez dela ikusten.

lantegiaren, baizik lanaren eta komunitatearen filosofia original bat aurkezten du. Ez Estatuaren filosofia bat, baizik gizartearena, komunitatearena. Eta pertsonarena, komunitatearen barruan, Estatuaren barruan edo azpian baino lehen. Kooperatiba kontzeptuaren azpian komunitatearen kontzeptua dago; komunitatearen erdian pertsona. Estatuak, han urruti eta azkenean bakarrik. □